



INFORMATIKA TEKNIKARI 2 PLAZA
2026/03/25

PROBA TEORIKOA: JARRAIBIDE ORRIA

*Arreta handiz irakurri jarraibide hauek. Oso garrantzizkoak dira saioa nola egin jakiteko. Ariketa egiteko moduz **zalantza** edo **zailtasunik** baduzu, ez dudarik izan eta **galdetu zaintzaileei ariketa hasi baino lehenago**.*

EZ IDATZI EZER, HARIK ETA AGINDUA EMAN ARTE.

- Ariketak egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean utzi behar duzu zure NAN (nortasun agiria), ondo ikusteko lekuan. Ariketak egiteko denbora osoan zehar, mahai gainean, ariketak egiteko eman zaizun materiala, azterketan zehar banatuko dena eta nortasun agiria besterik ezin duzu eduki.
- Ezin izango da telefono mugikorrik, erloju adimendunik, pinganillorik, entzungailurik edo bestelako gailu elektronikorik konektatu. Gailu horiek ezin izango dira mahai gainean jarri, eta gordeta eta itzalita egon beharko dute.
- Ariketak egiteko denbora osoan zehar, erabatekoa izan behar du isiltasunak. Norbaitek ezegoki jokatzeko badu, edo gainerako hautagaiei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko da.



- Mahai gainean honako material hau izan behar duzu:
 - **Erantzunen orria:** EZ IDATZI EZER, harik eta agindua eman arte. Erantzun orria bikoitza da, bata zuria eta bestea horia. Ez banatu orriak ariketak amaitu arte. Izan ere, ariketak amaitu ondoren, orri zuria bakarrik entregatu beharko duzu, eta orri horia zeuretzat gorde.

Zerbait falta bazaizu, eskatu.

- Probaren iraupena **hirurogeita hamabost (75) minutukoa** izango da.
- Ariketak **70 galdera** ditu. **Azken 10 galderak ordezkokoak dira**, eta bakar-bakarrik hartuko dira kontuan **aurreko 60takoren bat baliogabetzen bada**. Hala ere, **zuk 70 galderak erantzuten saiatu behar duzu**. 0 eta 20 punturen artean puntuatuko da, eta ariketa hau gainditzeko gutxienez 10 puntu eskuratu behar dira.
- Galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran: A, B, C eta D. Galdera bakoitzak erantzun zuzen bakarra dauka. Galdera eta dagozkion lau erantzunak irakurri ondoren, erantzunen orrian jarri behar duzu zein den erantzun zuzena.
- Gaizki erantzundako galderak ez dira zigortuko.



- **Adierazitako ordua baino lehenago amaitzen baduzu**, har ezazu zuretzat erantzunen orriko orri horia, eta gero, eskua jaso eta emaitza orri zuria zaintzaileari. Ondoren, azterketa entregatu duzula egiaztatzeko agiria sinatu beharko duzu, eta, hori eginda, aretotik irten ahal izango zara.
- **Azken 15 minutuetan** gelatik irtetea sor daitezkeen zarata-arazoak direla-eta, malgutasunez jokatu da: enbarazu arazorik ikusten ez bada irteten utziko zaizue amaitu ahala; bestela, ez.
- **Behin-behineko emaitzak** Eibarko Udalaren iragarki taulan eta web gunean (www.eibar.eus) argitaratuko dira.
- **Hautaketa prozesuaren balorazioa** egin nahi izanez gero, sakatu hemen (www.eibar.eus: Sarrera/ Udala/ Udal sailak eta Zerbitzuak/ Antolaketa eta Langileria/ Hautaketa prozesuen zerbitzu karta/ Balorazio-inkesta).

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZARENGATIK